



Eman hegoak euskarari



Gure hildakoekin bizitzea

Bizitza asko omen dauzkagu, ez elkarren jarraian, ehunduta baizik

ARITZ GORROTXATEGI

Delphine Horvilleur Nancy jaio zen, Frantzia, 1974an. Idazlea, filosofoa eta errabinoa da. Jerusalem egin zituen hebreerazko eta arabierazko ikasketak, eta kazetaritzan jardun zuen gaztetan. New Yorkera jo zuen gero, Talmuda ikastera. 2008an, 33 urterekin, jaso zuen bere errabino ordenazioa. Susmatuko duzuen, munduan ez daude emakume errabino asko. Esaterako, genero aldaerak jasotzen dituen Elhuyar hiztegiak ez du baliokiderik erdarazko 'rabina' hitzerako. Maskulinoa baino ez du jasotzen. Frantzia errabino izendatutako hirugarren emakumea izan zen Horvilleur, eta bere sorterriko Mugimendu Judutar Liberalaren ahots nagusietako bat da. Hain-

bat liburu kaleratu ditu, eta lagun batek gaztelaniaz argitaratu dioten lehena oparitu zidan duela gutxi, 'Vivir con nuestros muertos' (Libros del Asteroide, 2022). Urte honen hasieran bertan, bigarrena kaleratu diote, 'Reflexiones sobre la cuestión antisemita' (Libros del Zorzal). Nago gehiago ere iritsiko direla, egile benetan interesgarria baita.

Nire eskuetara heldu den 'Vivir con nuestros muertos' heriotzari buruzko saiakera adierazgarria da, argitasunez eta gardentasunez idatzia. Eta kontraesankorra dirudien arren, bizi pozez. Bizitzaren alde. Bakoitzari berea, biziei zein hilei. «Ez dago ezer arriskutsuagorik hildakoei hitz eginaraztea baino. Baina ezer ez da sakrilegoagorik

haiek isilaraztea baino». Horvilleurrek hileta zeremoniak eskaintzen ditu hilerrietan. Hildakoez hitz egiten du, narrazio bat eraikitzen du haien inguruan, hildakoaren senideak laguntzen ditu azken agurrean... Bitxia bada ere, Horvilleurrek laikotasuna defendatzen du. Laikotasuna irekiera bezala ulertuta. Gureak ez diren sinesmenei leku bat ematea bezala. «Laikotasunak defendatzen du gure bizitzako espazioa sinesmenez betetzen dela, eta ziurtasunik gabeko hutsune bat bermatzen du beti. Fede edo kidetasun baten espazio osoa bereganatzea eragozten du. Zentzu horretan, laikotasuna transzendentzia da. Esaten du beti dagoela bertan nire sinesmena baino zabalagoa den lurralde bat, arnasa har-



tzeko bertara iritsi den beste batena hartzeko gai dena».

Horvilleurren hildakoen zerrendan daude, esaterako, 'Charlie Hebdo' aldizkariaren aurka egindako atentatuan erail zuten Elsa Cayat psikoanalista, harekin idatzizko harremana izan zuen Marc, Auschwitzetik bizirik irtendako Sarah, Simone Veil eta Marceline Loridan-Ivens 'Birkenauko neskak', Isaac txikia, Ariane, urte luzez bere hileta xehetasun osoz prestatu zuen Myriam... Eta guztien istorioekin batera, judutar tradizio hainbat kontu eta bitxikeria agertzen dira, saskiaren metafora, 'kadish'ari buruzko xehetasunak, eta, nola ez, txisteak (Itxitura esparruetatik bizirik atera eta umore beltza egiten ari diren bi judutarrei kargu hartzen die jainkoak: «Nola ausartzen zarete izugarrikeria horren kontura txantxak egiten?». Eta erantzuten diote biek: «Zer dakizu zuk, zu ez zeunden-eta han!»). Nola nahiko genuke gogoratuak izan? Nola gogoratu tragedia batean hildakoak? Zergatik ez gogoratu zoriontsuak izan ziren bitartean? Adibidez,

haurrak baldin baziren, lehen aldiz esne-gain harrotua jan zutenen. Nola erail daiteke norbait jainkoaren izenean? Ze Jainko «handi» bihurtzen da bere ohorea gizon batzuek gorde behar izateko bezain «txiki»? Zergatik ehortzi gorpuak, zergatik ez ehortzi gorputzak? Zergatik ez ehortzi judutarrek harriak hilobietan loreen ordez? Nola gonbidatu hildakoen bila datorren Azrael aingerua beranduago etortzera? Zer gertatu zen Isaac Rabin erail zutenean?


Hebreeraz, 'jaim' hitzak bizitza esan nahi du, baina pluralen. Hizkuntza horretan hitz hori ez da singularra. Bizitza asko omen dauzkagu, ez elkarren jarraian, ehunduta baizik, hariak bezala, existentzian zehar elkar gurutzatzen direnak. Liburuaren erro beretik datorren 'Lejaim!' hitzarekin amaitzen du idazleak. «Bizitzagatik!». Haren arbasoak Westhoffenetik datoz. Hango gereziak ez dira inoiz hiltzen. Lurretik erauztean ere, biziari eusten diote. Nahikoa da haiek pattarrean murgiltzea joandako belaunaldien alde topa egiteko.

Barkamenik ez

JON MARTIN-ETXEBESTE

Gauaren ilunean nabigatzeko mapa eratu du Martin Etxeberriak bere azken poema liburuan, nahiz eta nabigatzeak ez duen zertan portu bat izan helburu. Tematika gordinean buruz dihardu, ilargiaren alde ezkutuz eta pertsonen grina debekatuz; norberak bere burua ulertzeko izaten dituen zailtasunez. Winston paketea amaitu eta -makinan besterik ez dagoelako- Ducadosa hartu duenaren kezurrupean latza eskaintzen die birikei. Aurreko liburuetan baino hordiago ageri da zaraztarrak, egoera ertzekoagoetan eta ulergaitzago. Zeharo interesgarria da idazlearen bosgarren poema liburuarekin bere ibilbideari eman dion norabidea. Liburuari izena ematen dion komunikazio etena ('kanguru'

hitzak «ez dizut ulertzen» esan nahi du) asumitzen du idazleak, eta arriskuak liburu ausart bilakatzen du. Genitalek eta alkoholak leku pribilegiatua dute berrogei poematik gorako bilduman. Taburik gabeko liburua da; gaubelakoa, baina ez goibela. Sufrimendu indibidualek konponbide kolektiboa dutelako susmoa erakusten dute poemek, eta taberna ilunetan marrazten diren pertsonaiek nolabaiteko ihesaldia abiatu dute ('Terra incognita' baten bila akaso). Substantzien edo emozioen eraginez kontzientzia-egoera aldatuta duten gorputze(ta)tik mintzo dira. Gainera, poesian ohikoa den kutsu autobiografikoa gainditu egiten da liburuan; 'ni' bat baino gehiago topatuko ditu irakurleak. Nabarmentzeko modukoak dira 'Amondu da mundua' bezalako poema edo kanta bokazioarekin jaio den 'Entzun arretaz' izenekoak: «Izan beste guztientzat/ inork ikusi nahi ez duen zomorroa,/ tximeleta ilun hura/ eta ez eskatu barkamenik./ Ez baituzu izango».



KANGAROO
MARTIN ETXEBERRIA
Elkar. 92 or. 14 euro

Dirulaguntzei buruz

ARANTXA URRETABIZKAIA



Ulertzen dut zailtasuna. Agintarietako adin edo sektore batentzat dirulaguntzak abian jartzen dituztenean, gehienetan berdin egokitzen zaizkie diru sarrera oparoa nahiz eskasa dutenei. Laguntza horietako irizpide nagusia adina soilik hartzen denean, demagun garraio publikoaren esparruan, beharpen hori berdina da bi mila euroko pentsioa jasotzen duenarentzat edo milara heltzen ez denarentzat.

Ulertzen dut zailtasuna. Dirulaguntza hori banatzerakoan hartzailearen diru sarrera guztiak kontuan hartu ahal izateko, funtzionario ugari behar da, urrats hori bideratuko duen langile andana eta horrek kopuruari hozka ederra egingo lioke, horretan joango litzateke azken kopuruaren zati handia. Eta nahiko atzerapena du administrazioak, nahiko zail-

tasun, nahiko ezintasun. Gainera, joera hori du burokraziak, biderkatzen da, mugarik gabe ugaltzen. Burokraziak burokrazia gehiago erditzen du.

Horrela gertatu izan da, adibidez, arindarrari buruzko laguntzekin, laguntza behar ez dutenek ere baliatzen dutela aukera. Edo amatasunaren aldeko laguntzekin, berdin jasoko duela laguntza hori emakume aberats batek edo zaurgarritzat har dezakegun emakumeak. Edo adin handiko pertsonen bidaiekin, berdin ordaintzen dutela txangoa pentsio goiena dutenek eta pentsiorik xumeena jasotzen dutenek. Berdintsu gazte jendeari dagokionez.

Are gehiago, askotan erraztasun handiagoa dute eskura diru gehien dutenek, diruarekin batera baliabide edo gaitasun gehien dutenek eta, alderantziz, sarritan diru gutxien eskuratzen duenak zailtasun gehiago izan ohi du laguntza eskuratzeke egin behar diren urratsak betetzeko. Horrelakoa da gure gizartea, behar handiena duenak lanabes gutxiago du eskura dirulaguntzak eskuratzeke orduan.

Ulertzen dut zailtasuna. Baina gertatzen ari dena ez da zuzena, ez da bizidun. Hori bai, aldatzen zaila.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Cayo Hueso
Oihane Amantei. Elkar

3 Printzak begietan
Iratxe Ormatza. Elkar

4 Alaska
Castillo Suarez. Elkar

EZ FIKZIOA

1 Pantailen garaipena
Iñigo Martinez. Elkar

2 Irunberri 1990
Pako Aristi. Erein

3 Ura saltoka
Juan Kruz Igerabide. Alberdania

4 Moio
Kattalin Miner. Elkar